



AGINDUA EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILBURUARENA, ZEINAREN BIDEZ ALDEZ AURRETIK ONARTZEN BAITA 2019KO ABENDUAREN 9KO AGINDUA ALDATZEKO AGINDU-PROIEKTUA (2019KO ABENDUAREN 9KO AGINDUA, IBILGAILUEN AZTERKETA TEKNIKOAREN ZERBITZUAREN EMAKIDADUNEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN 2020. URTERAKO EZAR DITZAKETEN TARIFAK ARAUTZEN DITUENA).

2023ko uztailaren 6ko aginduaren bidez, organo horrek berak erabaki zuen 2019ko abenduaren 9ko Agindua aldatzeko agindu-proiektua egiteko prozedura hastea, eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen arabera eta bete beharreko gainerako legeen arabera egitea (2019ko abenduaren 9ko Agindua, ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuaren emakidadunek Euskal Autonomia Erkidegoan 2020. urterako ezar ditzaketen tarifak arautzen dituen).

Nahitaezko izapide guztiak egin dira hasiera-agindu horretan xedatutakoarekin bat etorriz, eta, fase honetan, organo honi dagokio proiektua alde aurretik onartzea, 6/2022 Legearen 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, non ezartzen baita «xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik».

Azaldutakoa kontuan hartuta, 2019ko abenduaren 9ko Agindua aldatzeko agindu-proiektuaren lehenengo Zirriborrea eta horri buruzko arau-eraginaren azterketa-memoria ikusita (2019ko abenduaren 9ko Agindua, ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuaren emakidadunek Euskal Autonomia Erkidegoan 2020. urterako ezar ditzaketen tarifak arautzen dituen), eta Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2019ko abenduaren 9ko Agindua aldatzeko agindu-proiektua alde aurretik onartzea (2019ko abenduaren 9ko Agindua, ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuaren emakidadunek Euskal Autonomia Erkidegoan 2020. urterako ezar ditzaketen tarifak arautzen dituen). Eranskinean dago 2023ko irailaren 29ko lehen zirriborrea.

Bigarrena.– Agintzea arau hori egiteko prozedurak aurrera egin dezala nahitaez bete behar diren izapideei jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, sinatu den datan.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua

MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA

AGINDUA, 2023ko XXXXko XXkoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren 9ko Agindua, zeinaren bidez arautzen baita 2020rako zer-nolako tarifak ezar ditzaketen zerbitzu-emakidadunek ibilgailuen azterketa teknikoaren esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan.

Martxoaren 16ko 48/2004 Dekretuak aldatuta, apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuan dago zehaztuta zein diren ikuskatzeko, izapidetzeko eta kudeatzeko zereginak ibilgailu automobilen segurtasunaren eremuan, eta zein esleitu dakizkiekeen ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzua ematen duten erakunde emakidadunei.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 7. artikuluan dago ezarrita ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzutik eratorritako tarifak dekretua bera garatzeko diren xedapenen bitartez finkatuko direla, dekretu beraren azken xedapenetako lehenengoan xedatutakoari dagokionez.

Artikulu hori garatzeko eman zen Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren 9ko Agindua, zeinaren bidez arautzen baita 2020rako zer-nolako tarifak ezar ditzaketen zerbitzu-emakidadunek ibilgailuen azterketa teknikoaren esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan.

Agindu hau indarrean egon eta aplikatu bitartean, argi geratu da agindua aldatzeko beharra eginbidearen kontzeptua sartzeko; izan ere, horren bidez, orain arte arlo horretan erregulazio espezifikorik ez zuten zerbitzu jakin batzuen tarifa-tratamendua zehaztu beharko da.

Hortaz, apirilaren 4ko 60/2000 7 artikulua ezarritakoaren arabera, non zehaztuta dagoen zein diren ikuskatzeko, izapidetzeko eta kudeatzeko zereginak ibilgailu automobilen segurtasunaren eremuan, eta zein esleitu dakizkiekeen ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzua ematen duten erakunde emakidadunei, eta bete beharreko gainerako xedapenen arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.- *Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren 9ko Aginduaren 5. artikulua aldaketa (Agindu honen bidez arautzen da 2020rako zer-nolako tarifak ezar ditzaketen zerbitzu-emakidadunek ibilgailuen azterketa teknikoaren esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan).*

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren 9ko Aginduaren 5. artikulua aldatzen da (Agindu honen bidez arautzen da 2020rako zer-nolako tarifak ezar ditzaketen zerbitzu-emakidadunek ibilgailuen azterketa teknikoaren esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan), eta honela idatzita geratzen da:

“5. artikulua.– Agindu honen III. eranskinean dago ezarrita zer tarifa aplika ditzaketen ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuko erakunde emakidadunek ibilgailuak pisatzeagatik, eskola-garraioaren eta adingabeen garraioaren azterketa espezifiko egiteagatik, eta salaketaren baten edo borondatearen ondoriozko ikuskapen partzialak egiteagatik.

Ikuskapen-txartelean oharrak eginez aplikatuko da eginbide bidezko tarifa, hala adierazten denean ikuskapen-eskuliburuan edo erreformen eskuliburuan. Egintza berean ohar bat baino gehiago egin behar badira, behin baino ez da aplikatuko eginbide bidezko tarifa, eta ezingo da aplikatu egindako idatzohar bakoitzeko.”

Bigarren artikulua.- *Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren 9ko Aginduaren III. eranskinaren aldaketa (Agindu honen bidez arautzen da 2020rako zer-nolako tarifak ezar ditzaketen zerbitzu-emakidadunek ibilgailuen azterketa teknikoaren esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan).*

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren 9ko Aginduaren III. eranskina aldatzen da (Agindu honen bidez arautzen da 2020rako zer-nolako tarifak ezar ditzaketen zerbitzu-emakidadunek ibilgailuen azterketa teknikoaren esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan), eta epigrafe hau gehitu zaio:

	Tarifa	
	Prezioa €	Prezioa, BEZa barne (% 21)
Eginbidea	6,03	7,30

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Industria-administrazioaren arloko zuzendari eskudunari ahalmena ematen zaio zernahi arazo ebazteko agindu hau eta aplikatu beharreko gainerako arauak interpretatu behar direnean, baita agindu hau aplikatzeko beharrezkoak diren egintzak emateko ere.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da eta, 2024ko urtarilaren 1ean jarriko da indarrean.

Aurrekoa gorabehera, data hori baino lehen Industria Administrazioaren arloko zuzendari eskudunak tarifak eguneratzen baditu Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko abenduaren Aginduko 8. artikulua aplikatuz (Agindu horren bidez, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek 2020. urtean aplikatu beharreko tarifak arautzen dira), tarifa hori gaituta geratuko da agindu honen bidez egindako aldaketak dagokion ebazpenean txertatzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko XXXXXaren XX(e)(a)n

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,

MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI